

Antxiñako fotografixia



Garai bateko estudiantiak

Aurtengo kursua beaurrera doia eta ixa azkenetan dago. Orain izango dira estudiante askorentzako burukomin eta larrialdixak. Argazkixan agerketan diran neskatilla gazte honeik ezta emuten esamiñetarako kezka larregi dakoiñik, baiña sasue haretan be izango zittuain azkenengo orduko estuasun eta bihalekuak. Ezkerretik esku-mara eta goitik behera hona hemen ikasle honein izenak:

Lehenengo ilaran: **Mari-bel Gorbea, Juanita Arabaolaza, Ana Mari Ugarte, Susana Mendizabal eta Karmen Ituarte.**

Bigarren ilaran: **Tere Uranga, Rosario Ugarte, Rosario Irizar, Arantxa Arregi, Arantxa Zubizarreta eta Maria Anjeles Zulueta.**

Hirugarren ilaran: **Pilar Arrazola, Pilar Arriaran, Kontxita Igartua, Karmenxu Onraita eta Edurne Aranbu-**

ru.
Laugarren ilaran: **Gurutze Idigoras, Ana Mari Arregi, Pilar Arregi, Edurne Urzelai eta Axun Kortabarria.**

Honezkero askok igarriko zebein, baiña hala be esan daigun gaztetxuok 1949ko udabarrizan Benediktinetako Kolejiñuan ikasten ziharduein neskatillak dirala.

J. E.

Argazkixa eta argibidiak Rosarito Irizar eta Karmen Ituartek eskuratu doskue.

Oharra: Fan dan hilleko aldizkarixan Santa Mariñako iturri gaiñian agiri diran umiak Migel Kapagiñeneko anai-arrebak dira: Maria Rosai, Joxe Ramon, Jesus Mari eta Jabi Aranburu. Eskerrik asko euroi informaziñuarengatik.

LAIXAN
Artisau lan exotikoak
Keramika
Zurezko gaiak
Arropa, Larrua
Apainketa
Barkagune kalea, 13
OÑATI

IRAZOLA
Indusketak
Lur-mugimenduak
San Lorenzo, 7 - 3º Ezk.
OÑATI Tfnoa: 78 25 97

Gu Oñatiarrekin
Guipuzcoano
BANKUA